

URTEKO MEMORIA 2022



Toki xume askotan jende xume askok gauza xume asko eginez, mundua alda dezake

AURKIBIDEA

1. PATRONATO JUNTA	3
2. KUDEAKETA TALDEA	4
3. DELEGATUAK	5
4. URTEKO KANPAINA	6
5. KUDEAKETA TALDEAREN GIZARTE ERALDAKETARAKO BESTE JARDUERAK	8
6. ORDEZKARITZEN GIZARTE ERALDAKETARAKO BESTE JARDUERAK	14
7. TANDANACUI	35
8. UDAKO BOLUNTARIOTZA - <i>HELDUAK</i>	36
9. PROIEKTUAK	38
10. MEMORIA EKONOMIKOA	50
11. ERANTZUKIZUN SOZIAL KORPORATIBOA	52
12. ERAGIN POLITIKOA	53
13. HARREMANAK	54
14. PUBLIKAZIOAK - <i>SUSTATU</i> - <i>GABONETAKO POSTALAK</i>	55

1 PATRONATU JUNTA

Bilerak

Patronatu Junta 2022 urtearen hasieran pertsona hauek osatzen zuten:

- Jose Roman Perez Conde, Presidente
- Francisco Javier Lorenzo Campo, Presidenteorde
- Fernando Casas Gallego, Diruzain
- Jose Mari Calvo Cilla, Idazkari
- Maite Pardina Larrate, Batzordekide
- Itziar Muniozguren, Batzordekide
- Ana Maria Ruiz, Batzordekide

2022ko ekainaren 22ko Juntan aldaketa bat suertatu da: Javier Lorenzo Campo baja izan da eta bere ordeztu Jose Antonio Villalabeitia Vitoria izan da izendatua, Presidenteorde karguarekin.

Urtean zehar Juntak lau bilera egin ditu Fundazioaren Egoitzan. Landutako gai garrantzitsuenak honako hauek izan ziren:

-Martxoaren 18ko bileran: 2021eko diru-kontuen baiepena. Salletar GGKEen Nazioarteko Plataforma sortzeari buruzko informazioa. 2022 udako nazioarteko boluntariotza proiektuen egoera. 2021eko Memoriaren eta Sustatu 27ren aurkezpena.

-Ekainaren 22ko bileran: 2021-2022 ikasturteko Planaren ebaluazioa. Larrialdi-egoeratako jardueraren protokoloa. "Salletar GGKEa eta Hezkuntza Sarearen arteko erlazioaren Gida Plana". Pertsona aldaketak Patronatu Juntan. 2022-2023 ikasturteko bileren egutegia.

-Irailaren 16ko bileran: Juntako Presidenteorde berriaren aurkezpena. 2022 urtarrila-abuztuko kontuen aurkezpena. 2022-2023ko Urteko Planaren aurkezpena. Akwabako udako boluntariotzari buruzko informazioa. 2023ko udako nazioarteko boluntariotzaren aurreikuspenak.

-Abenduaren 7ko bileran: 2023ko aurrekontuaren baiepena. 2023ko udarako prestatuko diren Nazioarteko Proiektuei buruzko informazioa. Lankidetzaren Proiektuen egoera 2022aren amaieran. Proyde-Proega Fundazioak Bilbon ordezkaritza bat duela ofizialki baieztatzea.

2 KUDEAKETA TALDEA

Bilerak

Kudeaketa Taldea 2022. urtean pertsona hauek osatu dute:

- Francisco Javier Lorenzo Campo, Zuzendari
- Jose Mari Calvo Cilla, Idazkari
- Laida Pino Gomez, Teknikari
- Jose Manuel Agirrezabalaga Odriozola, Boluntario

Irailean Francisco Javier Lorenzo Campok kargua utzi zuen eta José Antonio Villalabeitia Vitoriak ordezkatu zuen haren funtzioekin.

Taldea hamabostero biltzen da hausnarketak egin eta zereginak antolatzeko eta koordinatzeko.



3 DELEGATUAK

Bilerak

Delegatuen bilerak, ohi bezala, hiru aldiz egin ziren urtean zehar. Lehenengoa, urtarrilean, bideokonferentziaz, pandemiak hala beharturik; beste bietan batzuk Proegaren Egoitzan elkartu ziren eta besteek bideokonferentziaz parte hartu zuten. Hara aztertutako gai garrantzitsuenak:

-Urtarrilaren 24ko bileran: Proegaren Urteko Planean Ordezkaritzei dagokienaren analisia egin zen eta zenbait informazio eman, besteak beste 2021eko proiektuetarako jasotako diru-laguntzena eta 2022ko udako boluntariotzaren egoerarena. Jakitera eman zen, halaber, Ordezkaritzek euren memoria Drivera igo ondoren Kudeaketa taldeak osatuko duela Proegaren Memoria eta Sustatu 27 prestatuko, memoria labur gisa.

-Maiatzaren 31ko bileran aurten egin berri den Sentsibilizazio Kanpaina aztertu zen eta datorren urtekoari buruzko informazioa aurreratu. Era berean, udako boluntariotzaren inguruko azken erabakia partekatu zen, Akwabara bi boluntario joango direla, alegia, eta Gipuzkoako Jende Xumea taldearen aurreikuspenak ere azaldu ziren.

-Urriaren 10eko bileran: Urteko Plana aztertu eta azpimarratzeak egin ziren: Konkretuki, Ikasturteko Sentsibilizazio Kanpainako materialak komentatu ziren -kartela, triptikoa, oinarri-dokumentua-, Drive-n eta Sallenet-en non aurkitzen diren ere azalduz. Gabonetarako postalen berri ere eman zen. Atxikitako proiektu gisa, Togoko Tabinge-koa joango zaie. Eta erabaki zen postalak egitea urtero lau ikastetxeen eskutan jartzea, txandaka. Urtarrileko bileran erabakiko litzateke banaketa.

4

URTEKO KANPAINA

Gizarte eraldaketarako jarduerak

Urtero, Proyde-Proegak Sentsibilizazio Kanpaina bat sustatzen du. Kanpainako orientabide eta materialak “Arlepeko Salletar GGKEen koordinakundearen” (Proyde, Proyde-Proega, Proide, Edificando eta Proideba), La Salle Solidarietà Internazionale Onlus, eta Sed (Maristak), Proclade-Yanapay eta Proclade Fundazioa (Klaretarrak) GGKEen arteko Prestaketa Taldeak eginak dira. Kanpaina hau tokian tokiko Ordezkaritzetan egiten da, Euskadiko Salletar ikastetxe eta zentroetan txertaturik dauden Ordezkaritzetan, alegia.

Hauek dira gure giza multzoari, ikastetxe eta hezkuntza erakundeetako ikasle eta erabiltzaileen kopuruari, buruzko datuak:

IKASTETXEAK	UDALERRIAK	IKASLE KOPURUA
La Salle Berrozpe	Andoain	1211
La Salle	Beasain	600
La Salle	Bilbao	1309
La Salle	Donostia	928
La Salle San Luis	Donostia	331
La Salle Isasi	Eibar	493
La Salle Azitain	Eibar	323
Irungo La Salle	Irun	1280
Begoñako Andra Mari	Sestao	702
La Salle San Jose	Zarautz	645
La Salle Legazpi	Zumarraga	528
SOZIO-HEZKUNTZAZKO OBRAK	UDALERRIAK	ERABILTZAILEAK
Elkarbanatuz	Bilbao	1727
Artizar	Sestao	86
EGOITZAK		
La Salle Egoitza Unibertsitarioa	Donostia	72
GUZTIRA		10295



4

URTEKO KANPAINA

Gizarte eraldaketarako jarduerak

Kanpainan, ikasleekin, irakasleekin, gurasoekin eta salletar elkarteekin erabiltzen ditugu Prestaketa Talde horrek egindako material didaktikoak. Proegak euskarara itzultzen ditu eta egokitzen material horiek.

Kanpaina urari lotutako problematikan oinarrituta da, Garapen Iraunkorreko 6. Helburuan (6. GIH) oinarrituta.



URAREN ERABILGARRITASUNA ETA
KUDEAKETA IRAUNKORRA NAHIZ
GUZTIONTZAKO SANEAMENDUA
BERMATZEA.



Ikasturteko kanpainaren goiburu motibagarria hau izan zen: “Ur zikina ezin da garbitu (Afrikar esaera zaharra). Zaintzea gure esku dago”.

Gure entitateentzat, ura ezin da beste merkantzia bat bezala tratatu beste askoren artean. Ura ondasun publikotzat hartu izan da beti, eta, ondorioz, modu arrazionalen eta solidarioan erabili behar da. Justiziaz banatzea organismo publikoen erantzukizun ukaezina da. Ildo horretan, konpainia boteretsuen jarduerak etengabe bilatzen dute beren onura, batzuetan erakunde eta botere publiko batzuekin batera, eta baliteke planteamendu horiek alde batera uztea, pobreei beren eskubideak kentzearekin mehatxatuz eta, horrekin batera, desberdintasun sozialak areagotuz.

Ura ezinbesteko baliabidea izan beharko litzateke bizitza eta ekosistemak mantentzeko, urik gabe bizitza arriskuan baitago. Baina, ororen gainetik, ura ezinbestekoa da gizakien duintasuna posible izan dadin. Horrela ulertzen da 2010eko uztailean Nazio Batuen Batzar Nagusiak ura eta saneamendua eskuratzeko oinarritzko eskubidea aitortzea, oinarritzko giza eskubide unibertsal eta besteren ezin gisa.

Beraz, ezinbestekotzat jotzen dugu guztiontzako ur garbiaren eskuragarritasuna bermatzea, beti kudeaketa jasangarria ziurtatzea eta pertsona guztientzako gutxieneko saneamendu egokia bermatzea.


5

KUDEAKETA TALDEAREN

Gizarte eraldaketarako beste jarduerak

PROYDE-PROEGA

● Urtarrilaren 27an, Proyde-Proegako lankidetzatzenikaria, Laida Pino Gomez, Beasaingo La Salle ikastetxean izan zen, Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleei Bidezko Merkataritzari buruzko tailer bat ematen. Azaroaren 11n tailer bera bultzatu zuen Donostiako La Salle ikastetxean.



● Otsailaren 2an boluntario eta La Salleko anaia den Josemi Duffau Sestaoko La Salle ikastetxean izan zen, GGKEari eta egiten dugun lanari buruzko tailer bat ematen.



● Otsailaren 7an, Proyde-Proegako lankidetzatzenikaria, Laida Pino Gomez, La Salle Beasain ikastetxean izan zen, GGKEari eta egiten duten lanari buruzko tailer bat ematen.



5

KUDEAKETA TALDEAREN

Gizarte eraldaketarako beste jarduerak

- Otsailaren 18an beste GGKE batzuekin bildu ginen Andoaingo Udalean, 2022an gauzatuko diren lankidetzak proiektuak herriari aurkezteko.



- Maiatzaren 7an boluntariotzaren azoka ospatu genuen Zarautzen, Gizaldek eta Zarauzko Udalak antolatuta.



- Maiatzaren 29an irundarrekin egon ginen Irungo Udalari esker aurrera eraman genituen proiektuak partekatzen.



5

KUDEAKETA TALDEAREN

Gizarte eraldaketarako beste jarduerak

- Irailaren 22an, migrazioari buruzko mahai-inguru bat partekatu genuen Eibarko Udalean. "Migrazioa ez da delitua. Bizitzak Salbatzea ez da delitua. "Harrera Sareak antolatua.



- Abenduaren 19an Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatu genuen, Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuen Lankidetzak udalerrian eta munduan egiten dituen lan solidarioen berri emateko. Ekitaldia bilkuren aretoan egin zen. Han izan ginen La Salle Zarautzekin aurtengo gure proiektua aurkezten beste GGKE batzuekin batera.



5

KUDEAKETA TALDEAREN

Gizarte eraldaketarako beste jarduerak

DONOSTIAKO BIDEZKO MERKATARITZA TALDEA

● Azaroaren 25ean, black friday, Setem Hego Haizearen ekimena babestu zen "Black Friday beldurgarria" lelopean.



● Maiatzaren 14an Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna ospatu genuen Donostiako Bidezko Merkataritza taldearekin. Donostiako Boulevardean azoka bat antolatu genuen, jolasak, musika, produktuen dastatzea... zeudelarik.



AZOKA/MERCADO
KIOSKO BOULEVARD

MAIATZAK 14 MAYO
10:30-14:30H

**BIDEZKO
MERKATARITZAREN
MUNDO EGUNA
DÍA MUNDIAL DEL
COMERCIO JUSTO**

EGITARAJA PROGRAMA
IKERKERA 10:30 APERTURA
DASTATZETA 11:00 DEGUSTACIÓN
TRIKITILARIAK 11:30 13:00 TRIKITILARIAK
JULASAK 11:00 12:30 JUEGOS
ZORRETA 14:00 SORTEO

CUANDO LAS RELACIONES COMERCIALES SON JUSTAS,
LAS MUJERES PUEDEN SONAR.

• EL COMERCIO JUSTO LO HACE POSIBLE •

LOLA VENDEDITA

BIDEZKO MERKATARITZA PRODUKTUEN SALMENTA: ELIKADURA, KOSMETIKA, ARROZA, DASTATZETA
VENTA DE PRODUCTOS DE COMERCIO JUSTO: ALIMENTACIÓN, COSMÉTICA, ROPA, DEGUSTACIÓN

DONOSTIAK 2020
DONOSTIAK 2020

5

KUDEAKETA TALDEAREN

Gizarte eraldaketarako beste jarduerak

0 POBREZIA

Pobreziaren aurkako nazioarteko egunaren inguruan (urriak 17), 0 Pobrezia plataforman parte hartzen dugun GGKEEK aste bat antolatu genuen pobrezia desagerrarazteko hainbat jarduerarekin:

- Urriaren 17an eman genion hasiera, prentsaurreko batekin, pertsonak eta herriek modu baketsuan elkarrekin bizi ahal izateko trebetasunak garatzea eta tresnak eskuratzea aldarrikatzeko, aniztasuna balioetsiz eta egiturazko desberdintasunez jabetuz.
- Hilaren 18an zine saio bat egin genuen Kresalan "Le Havre" filma ikusi eta solasaldiaz gozatzeko.
- Ostegunean, hilak 20, gerrilla kanpaina bat egin genuen Donostiako zonalde jendetsuenetan kartelak itsatsiz eta bankuetan aldarrikapen kartelak jarriz.
- Aste hau Bizimartxa batekin itxi genuen, Haizearen Orrazian hasi eta Boulevardeko plazan bukatu zena.



5

KUDEAKETA TALDEAREN

Gizarte eraldaketarako beste jarduerak

REDES

● Esenciales. Kanpaina hau hainbat gizarte-erakundek egin dute, eta bat egin dute legegintzako herri-ekimen bat abiarazteko. Ekimen horren helburua da beren eskubideak baliatu ezin dituzten 500.000 pertsona ezohiko moduan erregularizatzea. Horrela, elkarrizketa parlamentariarako sinadura-bilketan parte hartu dugu.



● Gure begirada eta bizimoduak justizia eta jasagarritasunerantz eraldatzeko Bilboko Metroan Pobrezia konektatzeko kanpaina egin zen. Kartelak jarri ziren Bilboko metroaren linean.



6

ORDEZKARITZEN

Gizarte eraldaketarako beste jarduerak



ANDOAIN

La Salle Berrozpe

Proegak bultzatutako ekintza hauek aurrera eraman dira ikastetxean, une ezberdinetan.

Lehenengoa abenduan egin zen, hilaren 2an, Boluntariotzaren Nazioarteko Egunean. Hainbat boluntariok ikasleekin partekatu zituzten beren esperientziak. Lanbide Heziketako ordezkariak solasaldian parte hartzeko gonbidapena jaso zuten, eta bertan jasotako hausnarketak ikaskideekin komentatu eta landu zituzten.



Abenduaren 3an, Andoaingo Udalak bigarren eskuko azoka antolatu zuen herritar guztientzat. Azoka honen helburua erabilitako objektuak berrerabiltzea eta hondakinak prebenitzea zen. La Salle Berrozpeko DBH 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako talde batek parte hartu zuen azokan.



BOLUNTARIOTZA, TANDANACUI ETA JENDE XUMEA.

Ikastetxean ez dugu Jende Xumea edo Tandanacui talderik. Baina hamasei urtetik gorako ikasleen artean elkartasuna eta boluntariotza lantzea da gure helburuetako bat. Kiroletako edo aisialdiko begiraleen eskaintzaz gain, ikasleei aukera ematen zaie Andoaingo Caritasek bultzatutako ekintza batean parte hartzeko, Caritasen eta Proyde-Proegaren arteko koordinazioa bultzatuz.

ANDOAIN

La Salle Berrozpe

Abenduan beste bi ekintza nabarmendu behar dira: postalen salmenta eta Goxo Bilketa. Aurten postalak erabili dira helburu berezi batekin. Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleak Andoaingo Zaharren Egoitzara joan ziren, eta mezu politez betetako postalak eramane zizkieten aitona-amonei. Bestalde, urtero bezala, ikastetxeak berak erabili ditu Gabonak zoriontzeko.



BESTE EKINTZA BATZUK

Abenduan, urtero bezala, gabonetako bilketa egin zen, eta Proyde-Proegaren eta Caritasen arteko lankidetzarekin eta Andoaingo familia batzuei helarazi zitzaizkien lortutako jakiak.

Otsailaren hasieran, Andoaingo Udalarekin eta Hurria Sahara elkartearekin batera, Itxaropena elikatzen du kanpaina bultzatu da, Batxilergoko lehen mailan ikasle saharar batek egindako bideoa erabiliz.

SEUR Fundazioarekin lankidetzan egindako tapoi-bilketak urtero bezala funtzionatzen jarraitzen du. Zentroko hainbat leku egokitu dira bilketa egiteko, eta tapoiak utzi ahal izan dira eraikin bakoitzean.

Gipuzkoako Odol Emaila elkartearekin lanean jarraitzen dugu. Urtero bezala, otsailean zentroko kideek odola eman ahal izango dute lehen aldiz. Deia hemezortzi urte bete berri dituzten ikasleei zuzenduta dago bereziki, baina adin horretatik gorako edonork parte har dezake.



BEASAIN

La Salle

Beasaingo Udaleko Lankidetzak Sailaren plataforman parte hartu da Boluntarioen Jardunaldia prestatzeko orduan.

PROYDE-PROEGA KANPAINA

Proyde-Proega Kanpaina martxoaren 7tik 11rako astean egin da. Ikasleekin eta haien familiekin egindako jarduerak honako hauek izan dira:

- Aurtengo leloa landu da eskoletan, triptikoaren eta kartelaren laguntzarekin.
- Goizeko Gogoeta eguneroko leloaren inguruan egin da.
- Ukrainako gerra eta gatazka dela eta, kanpaina lortutako dirua Ukrainara bideratu da (4.500,0 €).
- "Bizkotxo Solidarioaren" jarduerari ekin zaio berriro, pandemiaren ondorioz ia 3 urtez geldirik egon ondoren. Hala ere, ikasle guztiak eremu batean ez pilatzeko, gelaka egin da.
- Urtero bezala, Gabonetako postalekin lagun ikusezina egin da ikasle eta irakasleen artean.

JUSTIZIA ETA BAKEAREN ASTEA

Justiziaren eta bakearen astea ospatu da, eta honako erakunde hauekin harremanetan ikasleei bideratutako ekintzak egin ditugu: Adinekoen Arangoiti egoitza, Gautena, ONCE, desgaitasuna duten pertsonentzako KEMEN kirol elkarte, ASPANOGLI, Atzegi, Txolarte programa, ATERPE, Caritaseko nekazaritza tailerra.



BIDEZKO MERKATARITZA

Irakasleentzako produktuak bi unetan jarri dira salgai: Gabonetan eta Aste Santuan. Bietan arrakasta handia izan du, dena saldu zen. Ikasleei eta familiei ezin izan zaie salmenta handitu, pandemiaren ondorioz jarduera gehienak bertan behera utzi behar izan baitira.

BILBO

La Salle

PROYDE-PROEGA KANPAINA

Urtarrilaren azkenengo astean (24-28) Proyde-Proega “Oinarriak landatu ditzagun, etorkizuna erein dezagun” kanpaina egin genuen ikastetxean. Egunero goizeko otoitz batekin hasi, eta arlo batzuetan ere ekintza bereziak egin ziren, adinaren arabera (Kanpainako zikloko arduradunek prestatutako materialen artean batzuk aukeratu ondoren). Aste horretan zehar urteko proiektua aurkeztu zen eta familiei diru-laguntza emateko gutun-azala bidali genien. Gutun-azalekin 3.530 € lortu genituen.

BIDEZKO MERKATARITZA

Urtean zehar irakasleek Proegako webgunean Bidezko Merkataritzako produktuak erosi genituen. Gure artean produktu hauen erosketa egiteko ohitura hartu dugu, eta gero eta jende gehiago animatzen da Bidezko Merkataritzako produktuak erostera.

Horretaz gain, ikasturtean zehar izan ditugun momentu berezi batzuk aprobetxatu dira (Lasterketa Solidarioa, Salleko Jaiak, Fair Friday, Jostailuen azoka solidarioa...) bidezko merkataritza postua jartzeko, ikasleen artean erosketa mota hau sustatzeko asmoz eta Tandanacuin parte hartzen duten ikasleek antolatua. Irailetik aurrera Bidezko Merkataritzako produktuen online salmenta martxan jarri dugu ere Bilbon, eta pixkanaka pixkanaka familiek eta langileek eskaerak egiteko ohitura hartu dute.

AZOKA SOLIDARIOA

Urtarrilean Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasleek ITB “Mila gustoz” proiektuaren barne Bidezko Merkataritzako azalpenak jaso ostean, euren Bidezko Merkataritzako produktuak prestatu zituzten eta azoka solidario bat antolatu zuten proiektuaren itxierarako. Bere produktu guztiak saldu zituzten.

Abenduan Tandanacui taldeak, LHko familien eta ITB proiektu baten laguntzarekin, bigarren eskuko jostailuen salmenta solidarioa antolatu zuen. Bildutako jostailu guztiak saldu ziren eta honekin Proyde-Proegarentzat lortutako dirua 433€ izan ziren.




BILBO

La Salle

JUSTIZIA ETA BAKEAREN ASTEA

Urtero bezala, Bakearen Kanpaina urtarrileko azken astean ospatu genuen eta ekintza bereziak antolatu ziren ikasgeletan. Pandemia aurretik justizia-esperientzia bat antolatzen zen maila askotan eta aurten egiten jarraitu da: LHko 3. mailan etorkin baten bisita jaso zuten eta bere esperientzia partekatu zuen gure ikasleekin. Lehen Hezkuntzako 5. mailan janari-bilketa egin zen.

DBH 4. mailako ikasleek Jonekin, Urduñako eta Abdelmonimeko Laguntza Zentroko zuzendariarekin, hitz egin zuten abenduan. Honek adingabe atzerritar baten bizitza nolakoa den kontatu zien. Oso aberasgarria izan zen bai ikasleentzat bai irakasleentzat. Batxilergoan, hainbat ikaslek Ukrainaren aldeko hausnarketa egin dute eta munduan gertatzen ari diren gatazkak gogorarazi dituzte, baita ikasleekin sentsibilizatzeko zenbait jarduera egin ere.



FAIR FRIDAY

Azaroaren azken ostiralean, Black Friday bezala ezagutzen den egunean, ikastetxean ekintza alternatibo eta solidarioa antolatu zen, ekitaldi musikala. Ikasle, ikasle ohi eta irakasleek parte hartu zuten ekintza honetan. Bidezko Merkataritzako produktuak saltzeko mahai bat ere egon zen. Sarreraren salmentari esker, 200€ lortu ziren aurtengo proiektuan laguntzeko.



BILBO

La Salle

GABONETAKO POSTALAK

Urtero bezala, abenduan Proegako postalak saldu genituen gure ikasle eta irakasleen artean. Harrera ona izan dugu; 746 postal saldu ditugu aurten.

TANDANACUI

Tandanacui talde bat ibiltzean hasi zen ikasturte hasieran. 60 gazte inguru eta 5 begiraleekin, ikasle-ohiak direnak, bi astero elkartzen dira pobrezia, justizia, bakea eta abarri buruzko jolasak eta sentsibilizazio jarduerak aurrera eramateko. Proega Delegazioarekin kolaboratu dute irailetik aurrera antolatutako ekintzak aurrera eramateko.



BILBO

La Salle

LASTERKETA SOLIDARIOA

Maiatzaren 6an, La Salleko jaietan gure Proegaren aldeko lasterketa solidarioa berriz antolatu genuen. Osasun egoeragatik ez genuen aurreko urteetan bezala prestatu, murritzua izan zen eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleek parte hartu zuten. Dorsal 0 erosteko aukera ere zabaldu genuen ikasle eta familien artean.

Jendea eskolara korrika egitera etorri zenez, Bidezko Merkataritzako postu bat ere ipini genuen gure produktuak sustatzeko. Guztira 292 korrikalari izan genituen eta dirua batu genuen!



DONOSTIA

La Salle

GOIBURUA

Goiburua: “Etxean zaude”. Balioa: Harrera eta onarpena.

Zer da eta zer ez da etxean sentitzea? Erantzukizuna da, harrera eta onarpena da, elkar zaintzea da, eroso sentitzea da... Bizikidetza osasuntsurako hain garrantzitsuak diren balio hauek jorratzen eman dugu ikasturtea.

Abendualdian zehar gure ingurunean sortu nahi dugun senidezko eta solidaritzazko giroak beharko lituzkeen jarrerei buruz ausnarketa egin dugu.

KILOPILA KANPAINA

Helburua 1000 elikagai jasotzea duen kanpaina da Gipuzkoako elikagaien bankura bidaltzeko. Familiek, ikasleen bitartez egiten dute haien laguntza, klaseetara janaria ekarriz. Kanpaina honetan Antiguoko futbol taldeak antolatutako Eguberri txapelketako familiek ere parte hartu zuten eta aurreko urteetako janari bilketa bikoiztu egin zen.



DONOSTIA

La Salle

JUSTIZIA ETA BAKEAREN ASTEA

Bakearen Nazioarteko eguna barnean hartuz, aste honetan zehar Giza Eskubideak gogoratu ditugu eta egin diren sentsibilizazio ekintzak izan dira: hitzaldiak, tailerrak eta eskolako kide guztien arteko Bake Keinua urtarrilaren 30ean.

PROEGA ASTEA

Aste honetan zehar, elkartasunaren astea ere deitua, elkarlanean dihardugun proiektu baten aldeko diru-bilketa da ardatz. Aurten, Ukrainako gerra zela eta, proiektu honetarako funtsak lortzen laguntzea erabaki zen, lasaliar GGKEen kanpainarekin bat eginez. Gainera, urteroko proiektuari ere lagundu genion, aurten Txadeko CTAP (prestakuntza zentroan) oinarritzen zen.



DONOSTIA

La Salle San Luis

PROYDE-PROEGA KANPAINA

2022an Proega Kanpaina egin genuen martxoaren 21etik 25era bitartean. Familiei gutuna helarazten diegu, urte horretako diru-bilketa zertarako den azalduz. Gainera, Proega Astearen aurreko ostegunean (martxoak 17) hamaiketakoa eta askari solidarioa antolatu genituen.



Gabonetako Kanpainarako, urtero bezala, Caritasekin kolaboratu dugu. 2022an pandemia aurreko bilketara itzuli gara (janari ez iragankorra).

Gainera, 2022ko martxoan, Ukrainako gerra eta bertako biztanleen egoera zirela eta, bilketa berezia egin genuen (arropa, haurrentzako janaria) Trintxerpeko ukrainar elkarte baten laguntzarekin. Bestalde, martxoaren 4an eskola osoak gerraren aurkako elkarretaratzea egin zuen.



DONOSTIA

La Salle San Luis

TANDANACUI

Tandanacui talde bat dugu, DBH 1., 2., 3. eta 4. mailako ikasleekin (15 pertsona inguru).

Hilean behin biltzen gara, eta elkarrekin prestatzen ditugu materialak eta kartelak kanpaina desberdinetarako, Zentroko hainbat lekutan jartzeko; eskoletatik pasa dira aste partikularrak aurkezteko; azoka solidarioa jartzen denean bertan egoten dira eta eskumuturrekoak eta bestelakoak prestatzen dituzte.

Urtero San Asensioko gazteen topaketan parte hartu izan dute eta 2022an, data aldatu zen eta ezin izan ginen bertaratu.



EIBAR

La Salle

PROEGA ASTEA ETA EGUNA

Urtero bezala, martxoan, 14tik 25era, Proega Astea egin genuen.

Eibarren, Argentinako Cordoba hirian Malvinas Argentinas proiektua bultzatzen jarraitzen dugu. Proiektu honek urteetan zehar izan duen jarraitutasunari esker, proposatutako helburuen garapena egiaztatu ahal izan dugu.

Martxoaren 18an joko solidarioak berreskuratu ahal izan genituen.

Osasun egoeraren aurrean burbuila taldeekin aurrera egiteko erabakia hartu genuen: orduro, DBHko klase bat. Tandanacuko gazteek aparteko lana egin zuten, eta 5 ikasleko taldeetako begiraleak izan ziren, proba desberdinak egiten lagunduz. Kanpo-zorrarekin, etorkinekin, desberdintasun sozialekin eta abarrekin lotutako jokoak landu ziren.

Aurtengo kanpaina solidarioa Proega Egunarekin (martxoak 26) amaitu zen. Egun horretan, gure GGKEaren urteko helburuak (Sustatu aldizkaria banatuz) aurkezteko, Bidezko Merkataritzako produktuak saltzeko eta jolas kooperatiboak antolatzeko aprobetxatu genuen, Eibar Izartxoko begiraleen laguntzarekin.



EIBAR

La Salle

TANDANACUI

Posible izan da Tandanacui taldeen deialdia egitea. Eta erantzuna oso positiboa izan da: DBHko 12 ikaslek eta Batxilergoko 25 ikaslek eman dute izena.

Irailaren amaieran hasi genituen asteroko bilerak: Batxilergokoak, astearteetan eta DBHkoak, asteazkenetan. Pastoral Sailaren bilerak bi taldeen arteko koordinazinarako esparru lez balio zuen, ikastetxeko kanpainen eta sentsibilizazio jardueretan denon artean laguntzeko.

BIDEZKO MERKATARITZA

Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna dela eta (maiatzak 14), gure GGKEak, Proegak, gure herriko beste Egoaiziarekin lankidetzan, Bidezko Merkataritzaren eta garapen iraunkorraren aldeko informazio-jardunaldi bat antolatu genuen.

Eibarko Udalaren dirulaguntzari esker, ludoteka baten zerbitzuak kontratatu ahal izan genituen. Ludoteka horrek haurren gozamina eragin zuen, oso entretenigarriak eta hezigarriak izan ziren jarduerekin.

Musika talde bat ere kontratatu genuen, festa giroa sortzen lagundu zuena, eibartarrei gure proposamenak egiteko. Gainera, bi GGKEek zozketa solidarioa eta Bidezko Merkataritzako produktuen salmenta antolatu genuen.



EIBAR

La Salle

BESTE EKINTZA BATZUK

- Covid-aren aurkako osasun-neurriak zirela-eta, ezin izan zen Indarkeriarik Ezaren Eskola Eguna (urtarrilak 30) ospatu urtero egiten dugun bezala, beraz, Pastoral Sailak proposatu bezala, ikasgela bakoitzak keinu edo sinbolo bat prestatu zuen eta ekainaren 28an, gela guztien keinuekin egindako bideo muntaia ikusi genuen.al izateko.
- Gure ikastetxean, erlijio-eskoletan eta tutoretzan giza eta kristau balioak bultzatzeko, sentsibilizazio-saioak bultzatu ditugu, gure ikasleen artean tolerantzia, onarpena, errespetua, xenofobiaren aurkako borroka, justiziaren defentsa, giza eskubideak, genero-berdintasuna eta abar sustatzeko.
- Amaitzeko, Batxilergoko Tandanacui taldeak DBHko Lehen Zikloko ikasleentzako jolasak antolatu zituen. Horrela, ikasleak errefuxiatuen, etorkinen, genero-indarkeriaren, klima-aldaketa-aren eta Laugarren Munduaren errealitateetara hurbilduz. Jarduera amaitzeko, patioaren erdian Zero Pobrezia logoa egin genuen.
- Elikagaien Bankuko boluntarioen eskaerari erantzunez, azaroaren 25ean, ostirala, Tandanacui talde bat gure herriko Ipuruako Eroskira joan zen. DBHko eta Batxilergoko taldeetan antolatu ginen, 14: 00etatik 19: 00etara. Oso esperientzia positiboa izan zen, eta gure ikasleek eskuzabaltasuna, poza eta erantzukizuna erakutsi dituzte.



IRUN

La Salle

PROYDE-PROEGA KANPAINA

(2022-04-04/2022-04-08) Klaseetan lantzeko materiala erabili da eta bigarrenenez Bidezko Merkataritzako produktuak saldu dira. Klasean bakoitzak bere moduan, Proegaren eta Txadeko Kanpainaren inguruko materialak landu dira.

Aurtengoan ere ez da bazkari solidaria egiteko bermerik izan, beraz datorren ikasturtean hasi nahi dugu berriz ekimen honekin. Hala ere loteen salmentaren balorazioa positiboa izanik, honekin aurrera jarraitzeko asmoa dugu.

JUSTIZIA ETA BAKEAREN ASTEA

(2022-01-24/2022-01-28) HH eta LHko ikasleek ikastetxean bertan ospatu zuten bakearen astea dinamika ezberdinen bitartez, azken produktu bezala hodei ilunen arteko izpi koloretsuak ageri diren eskulanak eginaz.



2023 urterako berriz ere Irungo plazan ikastetxe ezberdinak ekitaldi bateratu bat egiteko asmoa dago.

IRUN

La Salle

KILO KANPAINA

(2022-12-12/2022-12-21) Hirugarren urtez Gipuzkoako Elikagai Bankuarekin elkarlanean antolatu dugu Kilo Kanpaina. Betiko moduan etapaka elikagaiak biltzeko txokoak prestatu ziren eta azken egunean idazkaritzan elkartu zen bildutako guztia. Abenduaren 23an etorri ziren Elikagaien Bankuko bolondresak kutxen bila eta, bai hauen aldetik eta baita gure aldetik ere, positiboa izan da beste behin ekimena, bai antolakuntza aldetik eta baita emaitza aldetik ere, aurreko urteko kopuruetara iritsi ez bagara ere.



BESTE EKINTZA BATZUK

● Beste urte batez aurrera eraman dugu Bidezko Merkataritzako loteen salmenta eta aurtengoan ere erantzun ona izan duenez, datorren urtean honekin aurrera jarraitzeko erabakia hartu da. Bestalde, ikastetxeak hainbat lote erosteko asmoa erakutsi du ikastetxera hitzaldiak, ikastaroak... ematera etortzen direnei esker moduan emateko. Oraindik ez dago postu finko bat jartzeko asmorik.

● Proegarako bazkide berriak lortzeko kanpaina bat aurrera eramateko materiala prestatu zen, baina ez zen momento aproposa topatu hasiera emateko, ondorioz, 2023 urtean, apirila aldera, lantzea pentsatu da.

● Pandemia aurreko ohiturei eutsiaz, Irunen “Irun Munduarekin Lankidetzan” izeneko azoka antolatu zen maiatzaren 22an eta bertan parte hartu genuen, bai gure ikastetxean eta baita Proegan bere osotasunean lantzen dituen proiektuen berri emateko.



ZARAUZ

La Salle

PROYDE-PROEGA KANPAINA



Proega Astea (Ukraina eta Txad) maiatzaren 2tik 6rako astean egin genuen. Proegaren Sentsibilizazio Kanpaina, ordea, martxoaren 12tik 16rako astean egin zen (Jarduerak: bizkotxo solidarioa, jolas kooperatiboak, bideoa bistaratzea...)

TANDANACUI ETA JENDE XUMEA

Tandanacui taldea martxan dago zentroan: DBH 4. mailako urteko 6 gazte daude bertan. Astero biltzen dira, ostiral arratsaldean.

SENDIAREN EGUNA ETA JAI SOLIDARIOA

- Sendiaren egunean (maiatzeko azken larunbata) Merkataritzako denda jartzeaz gain, bizkotxo eta kafe solidarioaren salmenta. Jai solidarioa (2022ko abendua). LH 1.go mailako gurasoek jai solidarioa antolatu zuten, eta bertan bildutakoa Proyde-Proegako proiektuari laguntzeko da.



ZARAUTZ

La Salle

BIDEZKO MERKATARITZA

Bidezko Merkataritzako denda herriko plazan urtarritetik maiatzera, hileko larunbat batean. (2.larunbata normalean). Bidezko Merkataritzako denda eskolan ostiraletan, urritik aurrera. Zarauzko I. Boluntariotza azokan parte hartu, Proyde-Proega ezagutarazteko.



BESTE EKINTZA BATZUK

DBH3 mailan eta LHko mailetan: Aterpe, Saharautz, Caritas, Emaus, Aesleme, Elikagaien bankua, Aspanogi, Zaporeak, eta sareko obra diren Elkarbanatuz eta Artizar.

Hauetaz gain, Ukraniako gaia bat-batean sartu zen, eta ikastetxe mailan erantzuna eman zitzaion hainbat talderekin batera.

Gainera, SEIN. proiektuak aurrera eramaten ditugu, justiziaren eta bakearen plangintzaren barruko esperientzien azalpenekin, hainbat erakundetako adituek eta gurasoek beren esperientziak ikasleekin partekatzen dituzten LHko proiektuei dagokienez.



ZUMARRAGA

La Salle Legazpi

PROYDE-PROEGA KANPAINA

Ohikoa denez, kanpainaren lehen aurkezpena Gabonetako postalen salmentarekin egin genuen. Proiektua aurkezteko, LHko 4. mailako ikasleak ezin zirenez ikasgeletatik pasa, pastortzako kide batek bideo bat prestatu zuen eskolako gela guztietan proiektatzeko.

Ikasturte honetan, 22-23 Gabonetako Kanpainarako, Togo proiektuaren berri eman dute DBHko 4. mailako bi ikasle bikotek, ikasgelaz ikasgela.

Proega Astea martxoaren 28tik apirilaren 1era izan zen. Aste honetan HH eta LHko zikloen araberrako globoen dinamikarekin hasi ginen, ikastetxea girotzen eta sentsibilizatzen. Aste osoan zehar, goizeko hausnarketak egin eta DBHko tutoretza-saioetan sentsibilizazio material ezberdinak landu dira.

Aurten ezin izan dira gure inguruan garatu pandemiaren ondorioz aurreko urteetan egiten ziren jarduerak, adibidez, Hare Haizeak karabanako elikagaiak biltzea Sahararen alde. Ezta Arco Iris taldeak urtero prestatzen zuen antzezlan ere. Biltzen zenaren zati bat Proegarentzat izaten zen.

BESTE EKITNTZA BATZUK

- La Palmarekin eskuzabal: eskola material bilketa.(Urriak 29)
- Bizkotxo eskuzabala: Martxoak 28)
- Liburu merkatu eskuzabala: 2. eskuko azoka. (Apirilak 1)
- DBHko ikasleen antzerki eskuzabala: (Abenduak 22 eta 23)



ZUMARRAGA

La Salle Legazpi

BAKEAREN EGUNA

Urtero bezala, bakearen eguna ospatzeko ikastetxe osoa patioan elkartu ginen. Ekintza hau urtarrilaren 28an burutu genuen. Etapa bukaerako ikasle talde batek manifestua irakurri ondoren, ikasle bakoitzak bere puxika zuria, bertan idatzitako konpromezuarekin, askatu zuen eta guztiok, ikasle irakasle eta bestelako langileok, elkarrekin “Shalom Haberim” dantzatu genuen.



JUSTIZIA ETA BAKEAREN ASTEA

Erakunde ezberdinen bisitak jaso izan ditugu ikastetxean (Caritas, AESLEME, Aspanogi, Gizalde, DYA, Kale Dor Kayiko ijito elkarteak,...) ikasleekin formazio saio eta tailer ezbedinak aurrera eramanez. Erakunde ezberdinak bisitatzeraz ere atera gara ikastetxetik beraien egoitzetara: Argixaoko eguneko zentrora eta zahar egoitzara, Caritas, Aspace, Legazpiko Garagune...



7 TANDANACUI

Taldeak

Tandanacui taldeak La Salle Ikastetxeetako 14 eta 20 urte bitarteko gazteek osatzen dituzte. Aldizka elkartzen dira Garapenerako Lankidetzaren inguruko gaien gainean gogoeta egin eta horiei buruzko jarduera ezberdinak burutzeko.

Hezkuntza elkarteen sentsibilizazioan jarduten dute, horretarako kanpaina solidarioetan parte hartuz, ikastetxean bertan nahiz kanpoan antolatuak, informazio panelak jarritz eta ekitaldi solidarioak burutuz, hala nola, merkatu solidarioa, Bidezko Merkataritzako produktuen salmenta, bizkotxo solidarioaren eguna edo Elikagaien Bankuen laguntza. Aurten jarduerak normaltasuna hartzen joan dira pandemia murrizten joan ahala.

Hainbat talde daude martxan, batzuk urte hasieratik eta beste batzuk udaren ondoren. Hainbat dira Eibarren, Bilbon, Zarautzen, Sestaon eta Donostiako bietan: San Luisen eta Loiolan.



Udako Helduen Boluntariotza

Covid-19aren pandemiaren ondorioz, gure Fundazioak antolatzen zituen udako ohiko proiektu ia guztiak bertan behera geratu dira: Jende Xumearen taldeek ezin izan zuten proiekturik garatu udan, eta atzerrian proiektuak garatzeko prest zeuden boluntario helduak erakartzeko deialdirik ere ez zen egin. Dena den, salbuespen bat egin behar da: Akwaba, Abidjanen (Boli Kosta), Proyde-Proegak aspaldidanik harreman estua duen kaleko haurrentzako salletar harrera-zentroa. Izan ere, Akwabak Proyde-Proegako bi boluntarioen bisita jaso zuen udan. Biak ala biak beteranoak ziren, lekua eta esperientzia ezagutzen zutenak, hainbat aldiz parte hartu baitute bertan.

Gure boluntarioen lana izan da, batez ere, eskolako lanetan laguntzea eta jolas- eta kirol-jarduerak eta hainbat joko antolatzea, neska-mutilak ondo pasa zezaten eta, aldi berean, gizartean bizitzeko balio onuragarriak gara zitzaten: elkarren laguntza, konfiantza, elkartasuna, sormena, lankidetzeta, etab. Baldintza egokietan lan egin ahal izateko, Gipuzkoatik pilota, goma, puxika, mantal, kanika, karta eta abarren kargamentu bat eraman zuten. Gainera, jarduera horietako askotan, udako klasetan eta kirolean adibidez, Abobo auzoko haurrak ere gonbidatzen zituzten. Abobo, baldintza txarretan bizi diren bi milioi pertsona hartzen duen aldiri marjinal bat, horietako asko haurrak eta gazteak izanik. Imajina dezake hemen bakoitzak nahi duena: delinkuentzia, indarkeria, droga, prostituzioa, segurtasunik eza...



8

UDAKO BOLUNTARIOTZA

Helduak

Boluntarioek esaten dutenaren arabera, dena atera zen aurreikusi bezala, nahiz eta ziur egon beraientzat gordeko dituztela une horiek, non tokatu zitzaien lasai egotea, inprobisatzea, listua irenstea eta dena txukun zegoela esatea...

Hilabetearen errematea bost eguneko kanpaldia izan zen, hiritik 20 bat kilometrora antolatu zutena. Bertan parte hartu zuten Akwabako berrogeita hamar neska-mutilek, kanpin-dendetan bizi eta lo egin eta egunean zehar normalean etxean antolatzen ez diren jolasetan jolasteko esperientzia egin zutenak –kermesak, altxorraren bila... –, eta gauean kanpamentuko suak animatu zituztenak, non danbor eta dantzekin nabarmendu zitezkeen, artista burutuak bailiran. Esperientzia zoragarria, benetan...

Kanpamenduaren amaieran, senideren batek har zitzaketenek eurekin joan ahal izan zuten oporrak pasatzera, eta oraindik familia-integrazioko prozesua burutu gabe zeuden hamahiru mutilak zentzura itzuli ziren, ondorengo oporrak han igarotzeko.

Gure bi boluntarioak oso pozik itzuli ziren esperientziatik, Aboboko jendearen heziketa eta zorionari beren ekarpen txikia egin izanaren sentsazioarekin. Baina, batez ere, bizitzari buruzko ikasgai baliotsu asko ikasi izanagatik, beren pobrezia erdian pozik aurrera ateratzen diren pertsonekin kontaktuan egoteagatik. Horrela, Proegak bere helburu garrantzitsuenetako batzuk bete ahal izan zituen.



9

PROIEKTUAK

Gizarte eraldaketarako lankidetza



9

PROIEKTUAK

Gizarte eraldaketarako lankidetzak

AMAITUTAKO LANKIDETZA PROIEKTUAK ERAKUNDEEN DIRU-LAGUNTZA ETA PROEGAKO FUNTSEKIN

Izenburua	Herrialdea	Diru laguntza eman duen erakundea	Diru-sarrerak (2022)	Xehetasunak	Proiektuaren kostua (GUZTIRA)
Maia-q 'eqchi' s emakume nekazarien ahalduntze ekonomiko eta politikoa.	Guatemala	Donostiako Udala	14.343,17€	Dirulaguntzaren %30a	64.080,43€
Inklusioa eta partehartzea duen eskola eraikiz.	Argentina	Eibarko Udala	12.800,00€	Dirulaguntzaren %20a	138.652,98€
Profesionalki egoera ahulean dauden gazteak lan-munduan sartzen laguntzea, N'Djamenako CTAP zentroko tresneria eguneratuz.	Txad	Zumarragako Udala	2.000,00€	Dirulaguntzaren %20a	43.917,88€
		Andoaingo Udala	9.000,00€	Dirulaguntzaren %100a	
Haur eta gazte errefuxiatu siriar eta libanoar zaurgarrien hezkuntzarako, garapenerako eta integratzearako sarbidea erraztea eta hobetzea.	Libano	Caritas Bizkaia	20.000,00€	Dirulaguntzaren %100a	22.020,00€
Togoko landa-eremuko haurren kalitatezko hezkuntzarako eskubidea indartuz.	Togo	Orona Fundazioa	1.000,00€	Dirulaguntzaren %100a	32.032,39€
Akwaba etxearen funtzionamendurako eta mantentze-lanetarako laguntza.	Boli Kosta	Irungo Udala	9.550,00€	Dirulaguntzaren %50a	29.709,82€
Akwaba etxea: kaleko haurren birgizarteratze familiar, sozial eta laboralean laguntzea.	Boli Kosta	Zarauzko Udala	5.400,00€	Dirulaguntzaren %30a	55.751,00€
Akwaba etxerako elikadura gastuak.	Boli Kosta	Caritas Irun	15.000,00€	Dirulaguntzaren %100a	15.000,00€
GUZTIRA, 2022ko diru-sarrerak (amaitutako proiektuak)	89.093,17€				

9

PROIEKTUAK

Gizarte eraldaketarako lankidetza

MARTXAN DAUDEN LANKIDETZA PROIEKTUAK ERAKUNDEEN DIRU-LAGUNTZA ETA PROEGAKO FUNTSEKIN

Izenburua	Herrialdea	Diru laguntza eman duen erakundea	Diru-sarrerak (2022)	Xehetasunak	Proiektuaren kostua (GUZTIRA)
Inklusioa eta partehartzea duen eskola eraikiz.	Argentina	Eibarko Udala	99.880,00€	Dirulaguntzaren %80a	212.932,98€
Togoko landa-eremuko haurren kalitatezko hezkuntzarako eskubidea indartuz.	Togo	Zumarragako Udala	8.000,00€	Dirulaguntzaren %80a	34.932,39€
		Zarauzko Udala	12.600,00€	Dirulaguntzaren %70a	
Maia-q 'eqchi' s emakume nekazarien ahalduntze ekonomiko eta politikoa. II. Fasea.	Guatemala	Donostiako Udala	33.582,50€	Dirulaguntzaren %70a	60.656,11€
Haurren eskubideen babesa material ezberdinen erosketaren bitartez.	Togo	Irungo Udala	11.000,00€	Dirulaguntzaren %50a	23.585,47€
Inklusioa eta partehartzea duen eskola eraikiz (azken fasea).	Argentina	Eibarko Udala	56.000,00€	Dirulaguntzaren %80a	329.077,73€
GUZTIRA, 2022ko diru-sarrerak (martxan dauden proiektuak)	221.062,50€				

LANKIDETZA PROIEKTUAK PROEGAREN FUNTSEKIN BAKARRIK

Izenburua	Herrialdea	Proyde-Proegaren ekarpena
Akwaba etxea: kaleko haurren birgizarteratze familiar, sozial eta laboralean laguntzea.	Boli Kosta	5.000,00€
Kiri eta Kongoussi-ko ikasleei laguntzea.	Burkina Faso	1.000,00€
La Salleko Guadalupear Ahizpen formazioari babesa.	Ruanda	4.500,00€
Kalitatezko bigarren mailako hezkuntza Pildestiko Lanbide Eskolan.	Errumania	10.000,00€
Hainbat proiektu solidariari babesa.	Hegoafrika, Ginea Konakry...	4.500,00€
GUZTIRA (Proegaren funtsak)	25.000,00€	




Herrialdea: Guatemala

Diru laguntza ematen duen erakundea:

Donostiako Udala

Proiektua: Landa eremuko maya q 'eqchi' emakumeen ahalduntze ekonomiko eta politikoa Zona Reina-n, Quiché II. Fasea



2000 urtetik aurrera La Salleko Anaien Elkarteak, Proyde-Proega eta Fundación La Sallerekin batera, bere lehentasunen artean Malvinas Argentinas herrian; Argentinako Cordoba Probintzian, hezkuntza zentro bat sortu eta garatzea da, herriko nerabe eta gazteen bigarren mailako hezkuntza bermatzeko.


Gaur egun, herrialdeak duen murrizketarik handienetako bat eskola-azpiegiturarena da. Herri honetan Bigarren Mailako bi ikastetxe publiko daude, baina ez zegoen bat bera ere proiektu hau garatzen den Malvinaseko hirugarren sektorean. Sektoreko familiek beren seme-alabentzako maila honetako ikastetxea eskatzen zuten.

Proiektu honek jarraipena ematen die Eibarko Udalak orain arte finantzaturakoei, eta Bigarren Hezkuntza hau eraikitzeke zortzigarren fasea da; Bigarren Hezkuntzako Hector Valdivielso ikastetxe honetan elektromekanika eta elikadura espezialitateak irakasten dira. Oraingo finantzaketa proiektu honetan, alde batetik, 6 ikasgela eta bainugela sorta eraikitzeke diru-ekarpena eskatu izan da eskola-ekariari erantzun ahal izateko. Bestetik, jarduera neutralik ez dagoenez ikastetxeak proposamen pedagogiko kooperatiboak eta diziplinartekoak eskaintzen ditu gazteen partaidetza suspertuz.

Proyde-Proegak urteak daramatza Guatemalako Prodesa elkartearen hezkuntza proiektuetan laguntzen. Prodesak herrialdeko biztanleria indigenekin egiten du lan, batez ere.

Proiektua bost landa-komunitatetan eramango da aurrera. Zona Reina izeneko eskualdean aurkitzen dira.

Zona Reinaren ezaugarri nagusiak pobrezia-maila handiak eta bazterketa dira, nekazari maya q 'eqchi' gehiengo den biztanleriari eragiten diotenak. Egoera horrek batez ere emakumei eragiten die. Proiektu honek helburu hau du: talde berri bat ahalduntzeko ahaleginekin jarraitzea emakume nekazarien lana sendotuz, autonomia ekonomikorako eta partaidetzarako gaitasunak izan ditzaten, q 'eqchi' kultura maiaren balioak eta praktikak kontuan hartuz. Asmo hau bi alderdi osagarriren bidez lortuko da: bata, nekazaritza-ekoizpen ekologikorako prestakuntza-prozesu bat izango da, elikadura-subiranotasunaren eta maien kulturaren ikuspegiz. Honek hobeagotuko du emakumeen eta familien egoera ekonomikoa. Bi, prestakuntza politiko prozesu batek erraztuko du emakume-lider komunitario talde batek eragin politikorako eta haien eskakizunetarako gaitasunak izatea. Bi prozesu horiek nagusiki q'eqchi' maien hizkuntzan egingo dira.



Herrialdea: Argentina


Diru laguntza ematen duen

erakundea: Eibarko Udala

Proiektua: Inklusioa eta parte hartzea duen eskola eraikiz



Proiektu honi esker, ikasleak prestatzeko erabiltzen diren ekipoak eta teknikak berrituko dira, eta beren sektoreetan erabiltzen diren puntako teknologiak ezagutuko dituzte, zaharkitzea gainditzeko eta bezeroen eta teknikariak biltzeko enpresa potentzialen konfiantza ez galtzeko. Bestalde, CTAP zentro teknikoa laguntzeko eta berritzeko proiektu honek, gainera, sozio-hezkuntza-lana ondo egiteko oztopo izan daitezkeen beste inguruabar batzuei heldu nahi die. CTAPek, horretarako, proiektu honek eskaintzen duen aukera aprobetxatzen du, epe luzearako autosufizientzia eta iraunkortasun plan bat garatuz. Plan horrek, bere sektore profesional teknikoari dagozkion diru-sarrerak sortzen dituzten jardueren bidez, kanpoarekiko mendekotasuna pixkanaka ezabatzea ahalbidetuko dio. Horrela, gazte zaurgarriak lan-aukera berrietarako prestatu ahal izango ditu eta hazten doan enpresa-sareari gaitutako teknikari profesionalak eskaini ahal izango dizkio.



Herrialdea: Txad

Diru laguntza ematen duen erakundea:

Andoaingo eta Zumarragako Udala
Proiektua: Profesionalki egoera ahulean dauden gazteak lan-munduan sartzen laguntzea, N'Djamenako Ikaskuntza eta Hobekuntza Zentro Teknikoko tresneria eguneratuz



Proegak inplikaturik jarraitzen du Fratelli proiektuarekin, Salletar eta Maristen kongregazioek 2016. urtean Libanon abian jarri zuten proiektuarekin, alegia. Sozio-hezkuntzazko proiektua da gerratik ihes egin eta Libanora etorritako siriar eta irakiar neska-mutil, gazte eta errefuxiatuen alde.

Programak aurrera jarraitzen du komunitate siriarra eta irakiarra kokatuta dauden lekuetan. Lehen, Libanoko hegoaldeko eskualdean, Rmeileh-n. Komunitate irakiarra Beirut hiriburutik iparraldera dauden auzoetan Bourj Hammoud auzoan.


Herrialdea: Libano

Diru laguntza ematen duen entitatea:

Caritas Bizkaia

Proiektua: Haur eta gazte errefuxiatu siriar eta libanoar zaurgarrien hezkuntzarako, garapenerako eta integraziorako sarbidea erraztea eta hobetzea





Herrialdea: Togo

Diru laguntza ematen duen erakundea:
Zarautz eta Zumarragako Udalak

Proiektua: Togoko iparraldeko haurrentzako kalitatezko erabateko Lehen Hezkuntzako programa indartzea, Les Savannes Eskualdeko Landa Eskolen Sareari lagunduz

Zumarragako eta Zarauzko Udalaren finantzaketari esker, arazo larri bati aurre egiten dion proiektu honekin jarraitzen dugu: Sabanetako eskualdean dagoen hezkuntza-baliabide eskasari.

Proiektua 12 hilabetetan gauzatuko da eta Dapaong Elizbarrutiko Eskola Sareko 40 ikastetxetako 11.181 ikasleri (5.143 neska eta 6.038 mutil) mesede egitea du helburu.

Proiektuaren bidez konpondu nahi den arazo nagusia zonaldean hezkuntza mailan dagoen baliabide eskasiari aurre egitea da. Horregatik, esku-hartzeak honako hauek izango ditu ardatz:

- Sareko 40 eskolen funtzionamendua babestea, ikastetxeei eskola-materiala, material didaktikoa eta idazkaritzakoa emanez.
- Eskola-kantinak (eskola-jantokiak) direlakoan jarduera babestea, ikasle askok zerbitzu hori behar dutelako ikasturtearekin aurrera jarraitu ahal izateko.




Herrialdea: Togo

Diru laguntza ematen duen erakundea: Irungo Udala

Proiektua: Haurren eskubideen babes material ezberdinen erosketaren bitartez.


Irungo Udalaren laguntzarekin, beste bi ekintza zehatz hauei erantzun nahi zaie:

- Sareko eskola batean putzu bat eraikitzea, Tambingue eskolan.
- Sareko zuzendaritzako langileen prestakuntza, zehazki, eskolako 22 zuzendarirena.



Proyde-Proega Fundazioak Akwaba Harrera-etxearen funtzionamendua sostengatzen jarraitzen du. Bere funtsekin eta zenbait erakunderen ekarpenekin, aurten Zumarraga, Irun, eta Zarauzko udaletxeen eta Irungo Caritasen ekarpenekin, Harrera-etxearen funtzionamendu gastuen zati bat bere gain hartzen du eta azpiegituren hobekuntzan ere laguntzen du zentroak zerbitzu hobea eskaini dezan.

Akwaba Etxeak kalean jasotako mutilei eta auzoan eskolatu gabe dauden neska-mutilei, gizarte baztertze arriskuan direnei, aholku eraginkorra, eskolatze egokia eta bizi-egitasmoa eskaintzen die, gizarteratzea eta familian integratzea ahalbideratuz. Hiru-lau urtez egon ohi dira egoitzan. Urte horietan familiara berriro itzultzea prestatzen da. Akwaba Harrera-etxeak sare moduan lan egiten jarraitzen du Abidjaneko haurren alde diharduten beste erakundeekin, arrisku egoeren prebentzioan.



Herrialdea: Boli Kosta
Diru laguntza ematen duen erakundea: Irungo eta Zarauzko Udalak eta Caritas Irun
Proiektua: Akwabako kaleko haurren birgizarteratze familiar, sozial eta laboralean laguntzea



Proiektuak babesa ematen dio Errumaniako Pildesti herrian dagoen “La Salleko san Joan Bautista Lizeo Tekniko”an kalitatezko hezkuntza-finkatzeari, baliabide urriko familietako, gutxienez, 140 ikasleen formazioa bideratuz, Batxilergo tekniko baten oinarriak emanez, ikasleen espezializaziora zuzendua, horrela lanerako prestatuz edo goi-mailako hezkuntzan sartzeko.

Herrialdea: Errumania
Proega beraren funtsak
Proiektua: Kalitatezko bigarren mailako hezkuntza Pildestiko Lanbide Eskolan



9

PROIEKTUAK

Larrialdiak



9 PROIEKTUAK

Larrialdiak

LARRIALDI PROIEKTUAK

Izenburua	Doaintzak + Proegaren berezko funtsak
Ukrainako larrialdia	14.648,00€

Ukrainako gerrari erantzunez, Kristau Eskoletako Anaien Institutuak, Fondazione De La Salle Solidarietà Internazionale ONLUS delakoaren bitartez, "#LaSalleForUkrainians" ekimena abiarazi zuen 2022ko martxoan. Kanpainak kontzientzia soziala sortu zuen salletarron munduan, eta larrialdiko ekintza humanitariorako laguntza finantzarioa eman zien herri ahuletan gerrak eragindako pertsona eta gizarteei.

Proyde-Proegak kanpainan parte hartu zuen La Salleko gainerako GGKEekin eta erakundeekin batera.



9

PROIEKTUAK

Gizarte eraldaketarako sentsibilizazioa



9

PROIEKTUAK

Gizarte eraldaketarako sentsibilizazioa

SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUAK ERAKUNDEEN DIRU-LAGUNTZA ETA PROEGAKO FUNTSEKIN

Izenburua	Herrialdea	Diru laguntza eman duen erakundea	Diru-sarrerak (2022)	Xehetasunak	Proiektuaren kostua (GUZTIRA)
GEH. Gure gorputza eta planeta zaintzea: kontsumo arduratsuen eta bidezko merkataritzaren praktika.	Eibar	Eibarko Udala	4.560,00€	Dirulaguntzaren %80a	6.367,92€
GUZTIRA, 2022ko diru-sarrerak (sentsibilizazio proiektuak)	4.560,00€				

BIDEZKO MERKATARITZA SUSTATZEN EIBARREN

Proiektuaren helburua Eibarko biztanleek Bidezko Merkataritzaren printzipioak barneratzeko prozesuan jarraitzea da, kontsumo arduratsua eguneroko praktika gisa bultzatuz. Ez bakarrik helduengan arreta jarritz, baizik eta eremu horretan haurrak heztearen aldeko apustua eginez, kontsumo arduratsuen, elkartasunaren eta planetaren zaintzaren balio horietan hazteko aukera izan dezaten. Proiektua aurrera eramaten da Egoaizia eta Proyde-Proega GGKEen arteko koordinazioari esker.

Hauek dira egindako jarduerak:

- Lehen Hezkuntzako tailerra
- Haur Hezkuntzako tailerra
- Sukaldaritza tailerra
- Bidezko Merkataritzako Nazioarteko Eguna



9

PROIEKTUAK

Guztira


MOTAK	FINANTZAKETA
Amaitutako lankidetza proiektuak erakundeen diru-laguntza eta Proegako funtsekin	88.093,17€
Martxan dauden lankidetza proiektuak erakundeen diru-laguntza eta Proega funtsekin	221.062,50€
Lankidetza proiektuak Proegaren funtsekin bakarrik	25.000,00€
Larrialdi proiektuak	14.648,00€
Sentsibilizazio proiektuak erakundeen diru-laguntza eta Proegako funtsekin	4.560,00€
GUZTIRA	354.363,67€

10 MEMORIA EKONOMIKOA


Proyde-Proega 2022

FUNTSEN BANAKETA JATORRIAREN ARABERA

- Erakunde publikoak: 283.915,67€
- Proega beraren funtsak: 120.784,67€



PROEGA BERAREN FUNTSEN JATORRIA





- Sentsibilizazio Kanpainak: 44.121,87€
- Gabonetako postalak: 5.215,65€
- Erakunde pribatuak: 36.931,05€
- Bazkideak eta dohaintzak: 34.515,91€


10 TXOSTEN EKONOMIKOA

Proyde-Proega 2022

GASTUEN BANAKETA



FINANTZATUTAKO PROIEKTUEN BANAKETA GEOGRAFIKOA (DIRU SARREREN ARABERAKOA)



11

ESK

Erantzukizun Sozial Korporatiboa

Proyde-Proega Fundazioak garapen global solidarioak eskatzen duen lankidetzak ekonomikorako ildo serio eta eraginkorra eskaintzen die enpresa eta erakundeei. Proiektuak finantzatzeak egiazko globalizazioa burutzen lagundu egiten du, garapen solidarioaren bitartez.



12 ERAGIN POLITIKOA

Proyde-Proega 2022

Azken urte honetan ere esku hartu dugu, Euskadin eta Estatu mailan, gutxi garatutako lurraldeetan pobrezia eragiten duten egiturak aldatzeko egiten diren ekitaldietan. Eskuhartze hau partaide garen koordinakundeetako batzordeen bitartez egin ohi dugu. Azpimarratzekoa Proyde-Proegaren partaidetza Euskadiko GGKEn Koordinakundeak antolatzen duen Jardunaldian, Donostiako Bidezko Merkataritzaren Koordinakundean, Donostiako Pobrezia 0 Plataforman, Zarauzko Solidaritate Koordinakundean eta REDES Bizkaian.



13 HARREMANAK

Beste GGKE batzuekin

Proyde-Proega Fundazioak solidaritate-sare hauetan hartzen du parte:

- ✓ RELEM-eko (Europa, Ekialde Hurbila eta Egipto-Sudan) salletar GGKEen koordinaziorako batzordean
- ✓ ARLEP-eko (Espainia eta Portugal) salletar GGKEen koordinakundean
- ✓ Euskadiko GGKEen Koordinakundean
- ✓ Redes izeneko sarearen Koordinakundean (Garapen Solidariorako Erakundeen Sarea), bereziki Bizkaian
- ✓ Lankidetza eta Garapenerako zenbait udal plataformetan (Donostia – Eibar – Zarautz).
- ✓ Euskadiko Pobrezia Zeron
- ✓ Donostiako Bidezko Merkataritzaren Koordinakundean
- ✓ Lotu zaitez justiziaren alde plataforman (Caritas, Manos Unidas, Justizia eta Bakea, Confer eta Redes
- ✓ Lankidetza-hitzarmenak eginak ditu zenbait asoziazio eta GGKEekin (Proyde, Elkarbanatuz, Gipuzkoako Caritas, Bizkaiko Caritas)

14 PUBLIKAZIOAK

Sustatu 27


Apirilean argitaratu zen Sustatu triptikoaren 27. zk, euskaraz eta gaztelaniaz, 2021eko Memoria Labor gisa. Ale gutxi batzuk bakarrik inprimatu ziren, hizkuntza bakoitzean. Izan ere, bidalketa web orriaren bitartez egiten zaie Gipuzkoa eta Bizkaiko La Salle Ikastetxeetako familiei eta Fundazioko boluntario, lankide eta partaideei.

Triptikoan 2021ean finantzatutako garapenerako lankidetza proiektuen taula ageri da eta urteko memoria ekonomikoa. Zenbait lankidetza-proiektuen informazioa ematen da. Baita udako boluntariotza gisa “Jende Xume” gazte taldeek egin zutena Bartzelonan eta Granadan. 2021-2022eko Sentsibilizazio Kanpainaren berri ere ematen da. Gainera, bazkide egin edo dohaintzaren bat emateko bolante bat ere badakar.

EXTRACTO DE MEMORIA 2021

PROYDE-PROEGA

SUSTATU 27



PROYDE-PROEGA

Mucha gente pequeña, haciendo muchas cosas pequeñas, en muchos lugares pequeños, puede cambiar el mundo

La Salle

Madalena Jauregiberri 2, 20014 DONOSTIA

Con subvenciones y fondos propios

TÍTULO	PAÍS	Subvenciones	GASTOS	TOTAL
Propuesta educativa para la privación de la violencia contra las mujeres, niñas y adolescentes, en escuelas públicas de San Marino	Guatemala	Dep. Salda	15.967,93 €	15.967,93 €
Facilitar y mejorar el acceso a la educación, al desarrollo y a la integración de niñas, niños y jóvenes refugiados, víctimas y sobrevivientes	Uruguay	Caritas Uruguay	21.400,00 €	21.400,00 €
Hogar Abuelas: acogida y acompañamiento educativo para niñas y niños de la calle, barrio de Abasco, Bogotá	Colombia	Asociación	2.000,00 €	2.000,00 €
		Asociación	5.550,00 €	5.550,00 €
		Asociación	12.240,00 €	12.240,00 €
		Asociación	15.967,93 €	15.967,93 €
Empoderamiento económico y político de mujeres rurales más pobres en Zona Norte, Quiché, Guatemala	Guatemala	Asociación	14.734,93 €	14.734,93 €
Fortalecimiento del programa de educación primaria plena de calidad para niñas, niños y adolescentes del norte de Togo, mediante el apoyo a la Red de Escuelas Rurales de la Región de Las Sabanas	Togo	Asociación	15.940,00 €	15.940,00 €
Apoyo a la integración laboral de jóvenes profesionalmente desfavorecidos, a través de la actualización de los equipos del Centro Técnico de Aprendizaje y el fortalecimiento de la gestión	Uruguay	Asociación	12.540,83 €	12.540,83 €
		Asociación	8.000,00 €	8.000,00 €
Edificio escuela con inclusión y participación	Argentina	Asociación	11.571,80 €	11.571,80 €
Taller de electricidad en los centros de formación profesional de Bolivia y Nicaragua	Uruguay	Asociación	6.025,40 €	6.025,40 €
Seguimiento y monitoreo en Bolivia la educación superior	Uruguay	Asociación	2.600,00 €	2.600,00 €
Capo: Promoviendo hábitos de consumo responsables en El Salvador	El Salvador	Asociación	1.100,00 €	1.100,00 €
TOTAL			212.962,27 €	212.962,27 €

Solo con fondos propios

TÍTULO	PAÍS	GASTOS
Elaboración de manual de gestión en la Escuela Profesional de Policía	Paraguay	10.000,00 €
Apoyo al funcionamiento del Centro de Formación Profesional de la Calle en Colombia	Colombia	5.000,00 €
Apoyo a la educación infantil en los asentamientos de la región meseta de Guatemala	Guatemala	4.000,00 €
Fortalecimiento de la población Baka (pigmeos) del sur de Camerún	Camerún	4.000,00 €
Apoyo a la educación de niñas y niños	Paraguay	1.000,00 €
TOTAL		25.000,00 €

Total

Proyectos de cooperación con subvenciones y fondos propios	Proyectos de cooperación, solo con fondos propios	TOTAL
212.962,27 €	25.000,00 €	237.962,27 €

PROYECTOS DE COOPERACIÓN

CONSTRUCCIÓN DE UNA ESCUELA EN LÍNEA DE INCLUSIÓN Y PARTICIPACIÓN Argentina

Desde el año 2000 el trabajo realizado por la comunidad de Hermanos la Salle, acompañado por Proyde Proega y Fundación La Salle, tiene dentro de sus prioridades la creación y el funcionamiento de un centro educativo en la localidad de Malvinas Argentinas, Provincia de Córdoba, Argentina para garantizar la educación secundaria para adolescentes y jóvenes de esa ciudad.

En la actualidad una de las restricciones más grandes que enfrenta el país es la infraestructura escolar. En esta localidad existen dos secundarios públicos, pero ninguno en la tercera sección en donde se desarrolla este proyecto. Las familias de la zona demandan el ingreso de sus hijas e hijos en la institución.

En este proyecto se solicita, el aporte para la construcción de 6 aulas y una batería de baños que permita incrementar la cantidad de cupos para responder a la demanda escolar y, se suman actividades para generar propuestas pedagógicas cooperativas e interdisciplinarias así como el estímulo a la participación juvenil.



ESCOLARIZACIÓN BÁSICA DE LA POBLACIÓN BAKA (PIGMEOS) DEL SURESTE DE CAMERÚN Camerún

Los Baka (pigmeos) son una etnia africana que está establecida en zonas de selva virgen que hoy pertenecen a Camerún, Guinea Ecuatorial y Gabón. Sometidos a presiones del gobierno, han acabado estableciendo sus campamentos en las proximidades de los pequeños pueblos que ocupan los Bulu, Fang o Zaman.

Por sus características y tradiciones, este grupo necesita atención especializada para poder tener acceso a una educación de calidad. La colaboración de Proyde-Proega contribuye, además de a la escolarización de los niños y niñas baka, a reforzar su autoestima, mediante una educación inclusiva que les permita ir integrándose gradualmente en la sociedad.



14 PUBLIKAZIOAK

Gabonetako postalak

Urteroko legez, Gabonetako Postalen Kanpaina egin dugu. Horretarako hainbat salletar artistei marrazkiak eginarazi dizkiegu eta salmenta bideratu izan dugu. Eskola bakoitzari eskaini eta postal bakoitzetik kopuru zehatza eskatu ahal izan du.

Hau honela, aurten, 6.090 postal saldu ditugu.

Behealdean ikus daitezke aukeratutakoak, koloretsuak eta esanguratsuak. Bestalde, Proegako bazkide direnei ere bidali diegu postal bana Gabonak zoriontzeko.

